

ROCKA

ARLOA: Musika

MAILA: Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloa

DENBORALIZAZIOA: 10 ordu

HELBURU OROKORRAK

- Musika-estilo edo -genero desberdinetan murgiltzea eta musikaren aberastasuna ezagutzea
- Jarduera dinamikoen bidez, ikasleen musikarako konpetentzia garatzea

HELBURU ZEHATZAK

- Rock-musikan erabiltzen diren instrumentuak bereiztea
- Munduko zein Euskal Herriko rock-taldeak ezagutzea
- Abestiak ezagutzea
- Eztabaidaren eta argudiaketaren bidez, lana banatzen ikastea.
- Nork bere burua musikaren bidez adierazten ikastea (abestiekin, dantzekin nahiz erritmoekin).
- Rock-musikarekiko interesa piztea
- Ikasleei beren iritzia adierazten laguntzea.
- Talde-lana eta elkarrekintza sustatzea
- Musikaren bidez erlaxatzeko baliabideak ematea
- *Mindfulness*aren balioa transmititzea
- Nork bere burua ebaluatzen ikastea

JARDUEREN SEKUENTZIA

0. JARDUERA: [HASIERAKO JARDUERA](#)

A) HASIERA-FASEA

1. JARDUERA: Rock-musika ezagutzea

B) GARAPEN-FASEA

2. JARDUERA: Instrumentuak ezagutzea

3. JARDUERA: Talde ospetsuak ezagutzea

4. JARDUERA: Abestiak ezagutzea

5. JARDUERA: Taldekatzea eta abestiak banatzea

6. JARDUERA: Abestiak lantzea

7. JARDUERA: Aurkezpenak egitea

8. JARDUERA: Mahai-ingurua egitea

C) AMAIERA-FASEA

9. JARDUERA: Lasaitasunera itzultzea

10. JARDUERA: Ebaluazioa egitea

A) HASIERA-FASEA

1. JARDUERA: Rock-musika ezagutzea

Denboralizazioa	30 minutu
Materiala	Lan-koaderno
Helburuak	Ikasleek rock-musikari buruz aurretiaz dauzkaten ezagutzak partekatzea.

Jarduera honetan, ikasleek rock-generoari buruz zer dakiten azalduko dute. Jardueraren xedea ikasleak rock-generoan murgiltzea da. Horretarako, rock-generoari buruz aurrez dituzten ezagutzetatik abiatuko gara.

Hasteko, ikasleek, **bakarka**, galdera batzuei erantzungo diete. Adibidez:

- Zer dakizu rock-musikari buruz?
- Ezagutzen al duzu rock-talde edo -abestirik?

Galdera horiek **lan-koadernoan** daude. Ez du axola inolako ezagutzarik ez badute, asmoa ikasleak pentsatzen jartzea eta taldekideekin batera galderak osatzen ahalegintzea baita. Laguntza gisa, **webgunean**, jarduerari dagokion orrialdean, rockarekin lotura duten irudi batzuk aurkituko dituzte.

Ariketa egiteko denbora-tarte bat utzi ondoren (5-10 minutu inguru), ikasle bakoitzak bere erantzunak ozen esango ditu. Helburua, azken batean, ikasle guztiek generoari buruz aurrez dituzten ezagutzak partekatzea da.

B) GARAPEN-FASEA

2. JARDUERA: Instrumentuak ezagutzea

Denboralizazioa	1 ordu
Materiala	Lan-koadernoak, arbela
Helburuak	Rock-musikan erabiltzen diren instrumentuak bereiztea

Jardueraren garapena:

Aurreko jardueran, ikasleak rock-generoan murgiltzen hasi dira, eta rockari buruz zeuzkaten ezagutzak errepasatu dituzte. Jarduera honekin hasi baino lehen, unitatearen azken asmoa zein den gogorarazi behar zaie ikasleei: musika-jaialdi batean joko duten rock-izarren rola betetzea. Horretarako, genero honetan dauden *hit* edo abesti ospetsuen sorta bat interpretatu beharko dute, dantzatzuz, abestuz edota instrumentuak joz.

Rock-abestiak aurkeztu baino lehen, genero horri buruzko informazioa jaso beharko dute ikasleek, oso garrantzitsua baita interpretatuko duten musika aurretik ezagutzea. Lan-koadernoan aurkituko dute egin beharreko ariketa.

Lehenik eta behin, rock-musikari buruzko galdera batzuk planteatuko dizkie irakasleak. Adibidez:

- Zein erritmo-mota gailentzen da rock-musikan: azkarra ala motela?
- Zer instrumentu erabiltzen dira rock-musika jotzeko?
- Ikaskideren batek jotzen al du rockean erabiltzen den instrumenturik?

Erantzun zuzenak jaso ahala, irakaslea arbelean apuntatzen joango da. Adibidez, ikasleren batek rock-musikan gitarra erabiltzen dela esaten badu, irakasleak arbelean idatziko du hori.

Irakasleak, erantzun guztiak arbelean idatzi ondoren, rock-musikan erabiltzen diren instrumentuen argazkiak dagokien izenarekin lotzeko eskatuko die. Adibidez:

		GITARRA
		BAXUA
		TEKLATUA

		BATERIA
		AHOTSA

3. JARDUERA: Talde ospetsuak ezagutzea

Denboralizazioa	1 ordu 30 minutu
Materiala	Lan-koadernoak, arbela, bozgorailuak
Helburuak	Hainbat rock-talde ezagutzea Euskal Herriko rock-talde batzuk ezagutzea

Jardueraren garapena:

Garrantzitsua da taldekako dinamikekin hasi baino lehen rock-generoko taldeak identifikatzen jakitea, ikasleen kultura musikala zabaltzeki begira. Horretarako, jarduera honetan, lan-koadernoan aurkituko duten jarduera egingo dute, bakarka.

Jarduera egin aurretik, irakasleak jarduera honetan landuko diren musika-taldeen oinarritzko datu batzuk emango dizkie ikasleei. Adibidez:

- Talde bakoitzaren izena
- Taldea nongoa eta noizkoa den
- Zer hizkuntza erabiltzen duen
- Zenbat taldekide dituen
- Noiz eta non jo duen hemendik gertuen

Horrekin batera, talde bakoitzaren bideoklip bat jarriko die. Ez da beharrezkoa bideoklip guztia hasieratik bukaerara ikustea. Proposamen gisa, honako musika-talde eta abesti hauek jar daitezke YouTubean:

- Nirvana: *Smell Like Teen Spirit*
<https://www.youtube.com/watch?v=hTWKbfoikeg>
- AC/DC: *Highway to Hell*
<https://www.youtube.com/watch?v=l482T0yNkeo>
- The Rolling Stones: *Start Me Up*
<https://www.youtube.com/watch?v=SGyOaCXr8Lw>

- Fito y Fitipaldis: *La casa por el tejado*
<https://www.youtube.com/watch?v=8qz8FqmTsJY>
- Gatibu: *Bixotetzik*
<https://www.youtube.com/watch?v=H94MMf6pPzI>
- Berri Txarrak: *Iraila*
https://youtu.be/p2W_tYBH53c?feature=shared&t=62 (01:02tik aurrera)

Abestiak entzuten dituzten bitartean edo abestiak entzun ondoren, irakasleak honako galdera hauek egin ditzake:

- Ezagutzen al duzue talde horietakoren bat?
- Ezagutzen al duzue talde horien abestiren bat?
- Zein abesti gustatzen zaizue gehien?

Taldeen oinarrizko datuak jaso ondoren, eta abestien bideoklipen zatiak ikusi ostean, ikasleek ariketa egin beharko dute. Ariketan, alde batean, taldeen argazkiak aurkituko dituzte, eta, bestean, taldeen izenak. Helburua argazkiak eta izenak lotzea da. Bost minutu utziko zaizkie ariketa egiteko. Ondoren, denek batera ozen zuzenduko dute ariketa.

		AC/DC
		NIRVANA

		THE ROLLING STONES
		FITO Y FITIPALDIS
		GATIBU
		BERRI TXARRAK

Bukatzeko, etxeko lan gisa, gurasoei rock-talderen bat bereziki gustatzen zaien galdetzeko eskatuko diegu ikasleei. Ez da beharrezkoa izango erantzuna ikasgelara eramatea, etxeko lanaren helburua gurasoekin tarte atsegin bat igarotzea baita.

4. JARDUERA: Abestiak entzutea

Denboralizazioa	30 minutu
Materiala	Lan-koadernoak
Helburuak	Instrumentuak lantzea. Abestiak ezagutzea.

Jardueraren garapena:

Jarduera honetan, taldeka lantzeko abestiak entzungo ditugu.

Hasi baino lehen, abesti bakoitzean entzuten dituzten instrumentuak apuntatzeko eskatuko diegu. Lan-koadernoan daukate ariketa hori.

Ondoren, zuzenketa denen artean egingo dugu. Ikasleek instrumentuen soinuak bereizteko zailtasunak badituzte, irakasleak instrumentu horien bideoak erakutsiko ditu. Adibidez:

Hainbat gitarra mota: <https://www.youtube.com/watch?v=Ctpcwi1o210>

Baxua: <https://www.youtube.com/watch?v=ONw0q2ZhEXg>

Bateria: <https://www.youtube.com/watch?v=MHj9XIV3fFg>

Teklatua: <https://www.youtube.com/watch?v=HZkq8-chCmM>

5. JARDUERA: Taldekatzea eta abestiak banatzea

Denboralizazioa	30 minutu
Materiala	Papera
Helburuak	Taldeak egitea. Lana banatzen ikastea .

Jardueraren garapena:

Orain, unitate didaktiko guztietan mantenduko diren taldeak egingo ditugu. Unitate didaktiko bakoitzean lau abesti daudenez, lau talde egingo ditugu guztira.

Taldeak sortu ondoren, talde bakoitzak abesti bat hautatu beharko du. Kasu honetan, landuko diren abestiak hauek dira:

- 1) Niko Etxart - *Euskal Herria Rock N' Roll*
- 2) Elvis Presley - *Jailhouse Rock*
- 3) Queen - *We Will Rock You*
- 4) AC/DC - *Back in Black*

Abestiak banatzerakoan, ikasleek gustukoak duten abestia aukeratu ahal izango dute. Banaketa ausaz egiteko aukera ere badu irakasleak, lau papertxotan zenbaki bana idatziz. Irakasleak erabakiko du abestien banaketa nola egin.

6. JARDUERA: Abestiak lantzea

Denboralizazioa	2 ordu
Materiala	Ordenagailuak, bozgorailuak edo entzungailuak
Helburuak	Talde-lana sustatzea. Ikasleek musikaren bidez beren burua adierazten ikastea (abestea, dantzatzea eta erritmoa eramatea).

Jardueraren garapena:

Jadanik entzun dituzte landuko dituzten abestiak. Beraz, jarduera honetan, taldeka jarrita, talde bakoitzak egokitu zaion abestiaren bideoa ikusiko eta entzungo du (webgunean aurkituko dituzte bideo guztiak). Ikasleek bideoan eskatzen zaiena egin beharko dute:

- 1) Niko Etxart - *Euskal Herria Rock N' Roll*.

Ikasleek bideoan esaten denaren arabera dantzatu eta abestu beharko dute.

- 2) Elvis Presley - *Jailhouse Rock*

Ikasleek bideoan esaten denaren arabera aritu beharko dute dantzatzen eta abesten.

- 3) Queen - *We Will Rock You*

Ikasleek bideoan esaten denaren arabera jarraitu beharko diote abestiaren erritmoari, perkusiorako gorputza baliatuz.

- 4) AC/DC - *Back in Black*

Ikasleek bideoan esaten denaren arabera jarraitu beharko diote abestiaren erritmoari, perkusio-instrumentu batekin.

Talde bakoitzak moldaketak egiteko aukera izango du. Adibidez, ikasleren batek mugimendu-desgaitasuna badu, talde guztia haren beharretara moldatuko da. Horrela, gelakideek egoera horien atzean dauden zailtasunak ulertu ahal izango dituzte.

7. JARDUERA: Aurkezpenak egitea

Denboralizazioa	1 ordu 30 minutu
Materiala	Bozgorailua
Helburuak	Talde-lana sustatzea. Ikasleek musikaren bidez beren burua adierazten ikastea (abestiekin, dantzekin nahiz erritmoekin). Rock-musikarekiko interesa piztea

Jardueraren garapena:

Talde bakoitzak, dagokion abestia prestatu ondoren, gainerako gelakideen aurrean aurkeztu beharko du, musika-jaialdiko izarrak izango balira bezala.

Horretarako, lehenik eta behin, irakasleak talde bakoitzaren aurkezpena egingo du, eta, taldea prest dagoenean, musika martxan jarriko du. Jaialdiari emozioa areagotzeko eta ikasleak motibatzeko, lagungarria da aurkezpen antzeztua egitea; adibidez, honelako sarrera eginez:

"Jaun-andreok, iritsi da unea. Rock-musika atsegin duzue? Bada, hona hemen taldea! Talde honek abestia interpretatuko digu. Txalo bero bat taldearentzat!"

Horrela, gainerako ikasleek aukera paregabea izango dute rock-musika gehiago entzuteko eta ikaskideen lana ikusteko.

Talde bakoitzak bere abestiaren aurkezpena edo interpretazioa egin ostean, hurrengo jardueran gelakide guztiek izango dute sentitutako emozioei buruz hitz egiteko eta egindako lanari buruzko iritziak jasotzeko aukera.

8. JARDUERA: Mahai-ingurua egitea

Denbormalizazioa	1 ordu
Materiala	Lan-koadernoa, papertxoak (modu anonimoan egin nahi bada)
Helburuak	Ikasleei beren iritzia adierazten laguntzea. Talde-lana eta elkarrekintza sustatzea .

Jardueraren garapena:

Ikasleek rock-musikako zenbait dantza eta instrumentu ezagutu dituzte jada, bai eta estilo horretako abesti batzuk barneratu ere.

Amaitu baino lehen, talde handian elkarrekin jarrita, nola sentitu diren azalduko dute. Taldearen arabera, irakasleak aldatu edo moldatu egin ahal izango ditu galderak. Guk honako galdera hauek egitea gomendatzen dugu:

- Gustatu al zaizue?
- Nola sentitu zarete?
- Zer hobetuko zenukete?
- Identifikatu ekitaldiaren momentu onena eta txarrena.

Irakasleak jarduera hau modu anonimoan egiteko aukera emango du.

C) AMAIERA-FASEA

9. JARDUERA: Lasaitasunera itzultzea

Denboralizazioa	30 minutu
Materiala	Bozgorailuak, mahaia
Helburuak	Ikasleei musikaren bidez erlaxatzeko baliabideak ematea. <i>Mindfulness</i> aren balioa transmititzea.

Jardueraren garapena:

Jarduera honek ikasleak lasaitzea du xede. Horretarako, rock-estiloko balada edo pieza lasai bat aukeratuko du irakasleak; adibidez, Berri Txarrak taldearen *Aitu bihurtuak* balada.

Abestia begiak itxita entzuteko eskatu diegu ikasleei, eta abestia entzuten duten bitartean arnasa lasai hartu eta botatzeko; horrek, izan ere, bihotzaren taupadak pixkanaka-pixkanaka moteltzen eta baretasun-egoerara itzultzen lagunduko die.

C) AMAIERA-FASEA

10. JARDUERA: Ebaluazioa egitea

Denboralizazioa	1 ordu
Materiala	Lan-koadernoa
Helburuak	Nork bere burua ebaluatzen ikastea

Jardueraren garapena:

Sekuentziaren amaieran, ikasleek autoebaluazioa egingo dute. Taula honetan, galdera irekiei erantzunez, unitatean zehar nola aritu diren adieraziko dute, eta hausnarketa horrek beren jarduna erregulatzeko eta hobetzeko dituzten alderdiak identifikatzeko aukera emango die.

Taula lan-koadernoan bakarka bete ondoren, beren hausnarketak talde txikitan partekatuko dituzte, eta hobetzeko proposamenak egingo dizkiote elkarri.

Azkenik, talde handian bilduta, eta betiere irakaslearen gidaritzapean, lan-prozesu guztiaz mintzatuko dira: zer ikasi duten, zer zailtasun izan dituzten, hobetzeko zer proposamen egingo lituzketen...

Galdera	Erantzuna
Nola moldatu naiz taldean?	
Zer egin dut ondo?	
Zer hobetu dezaket?	
Arazorik izan al dut? Baiezkoan, nola konpondu dut?	
Zenbat ikasi dut? Askok, gutxi, ezer	

ez...?	
--------	--